

MARISOL GARMENDIA: DONOSTIARAKO AKORDIO HISTORIKOA DA

Donostiako Sozialisten bozeramaile Marisol Garmendiak hirirako akordio historikotzat jo du Defentsa Ministerioarekin Loiolako kuarteletako lurak erosteko lortutako akordioa.

Albiste bikaina da Donostiarentzat eta Donostiako herritarrentzat, Urumea ibai ertzean hiri-garapen berri bat eraikitzea ahalbidetuko baitu.

Bozeramaile sozialistak nabarmendu nahi izan du akordioa posible izan dela Pedro Sanchezen Gobernuak Donostiarekin duen konpromisoari esker. Sozialistok akordioarekin bat egin dugu, Urumea ondoan erdigune berri bat eraikitzea ahalbidetuko duena, 1.500 eta 1.700 etxebizitza artekoa, eta horrek eragina izango du Donostiako etxebizitzaren arazoan.